

ERRUGBIKO BERARIAZKO ARAUAK 2020-2021 IKASTURTERAKO

1. Kirol diziplinaren lehiaketako jardueren izena.

ERRUGBIA

2. Kirol diziplinaren lehiaketako jardueren joko-arauak.

Errugbia kontaktarekin.

10 urtetik beherakoak (10era jokatzeko da)

12 urtetik beherakoa (12ra jokatzeko da)

14 urtetik beherakoa (12ra edo 15era jokatzeko da)

3. Kirol federazioek antolatutako lehiaketa edo jardueretarako jarduketako arauak.

Errugbia kontaktarekin.

10 urtetik beherakoak (10era jokatzeko da)

12 urtetik beherakoa (12ra jokatzeko da)

14 urtetik beherakoa (12ra edo 15era jokatzeko da)

Baloia:

Etxeko klubak 6 baloi izango ditu prest (EEFk emandakoak), eta taldeko arduradun bakoitzak desinfektatuta dauden bi baloi aurkeztuko ditu (arbitro-taldearen aurrean desinfektatuko du).

Baloia aldatu eta erabilia dagoena desinfektatuko du baloiaren jabea den taldeko arduradunak, jokoaren zati bakoitzean. Bi zati daude, 4 minutukoa bakoitza, 10 eta 12 urtetik beherako kasuan; 5 minutukoa, 12-15 urtetik beherako kasuan.

Erabiltzen ari den baloia jokoaren edozein unetan aldatu behar bada, hori ere desinfektatuko da.

Aulkia:

Aulki-eremua joko-eremuan mugatuta dauden bi eremu izango dira (zelai erdikoa bakoitza, zutoinetaraino, bien artean 8 metroko distantzia utziz). Horrela, ordezeko jokalarien artean ahalik eta distantziarik handiena bermatuko da.

4. Parte hartzen duten erakundeek garatzen dituzten entrenamendu eta saioetarako jarduketa-arauak.

Esprai desinfektatzailea: kirolarien erakundeak esprai desinfektatzailea jarriko du teknikarien eskura, partidetan denek erabiliko dituzten baloiak eta materialak garbi ditzaten.

Ahal bada, norberak bere materiala erabiltzea saiatuko dira. Horrela, parte-hartzaile bakoitzari bere baloia, estera, haltera, goma eta bestelakoak banatuko zaizkio. Gehiegizko materiala erabiltzea saihestuko da; ezinbestekoa bakarrik.

Kanpoko eta aire zabaleko zelaiak erabiltzea gomendatzen da.

Kirolaria edozein kolpe, lesio, sendaketa edo beharrarengatik artatu behar bada, maskara eta eskularruak erabiliz egingo da.

Entrenamenduko ordutegiak finkatzea komeni da, txandaka, eta pixkanaka sartuz eta irtenez, alde batetik, klubek materialak garbitzeko eta desinfektatzeko denbora izan dezaten, eta bestetik, hurrengo taldea sartu baino lehen parte-hartzaile guztiak atera daitezten.